

NIKO ETA AMONA INTERGALAKTIKOA

ZOTIN PLANETARIOAREN KASUA

Abel
mutxategi



NIKO ETA **AMONA**
INTERGALAKTIKOA

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko urrian

Liburuaren diseinua eta maketazioa:

Asier Beltza

Irudiak:

Iván Landa

© Abel Amutxategi

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-132-9

L.G.: D 794-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

ABEL AMUTXATEGI



Zotin planetarioaren kasua

Ilustrazioak: Iván Landa

erein

JAI EGUNA IKASTOLAN



Egun hartan, algara alai batek hartu ninduen ikastolako patiora iritsi nintzenean. Soinu eta hots ugari nahasten ziren zorioneko iskanbila hartan: musika, korrika zebiltzan umeen irri eta oihuak... eta, batez ere, gaztelu puzgarriek airez betetzean egiten zuten soinua.

Ziur gaztelu puzgarrien soinu hori ezaguna egiten zaizula, baina benetan deskribatzeko zaila da. Niri siesta egiten ari den munstro erraldoi baten arnasa hartzea gogorarazten dit.

Lehenik, **ffffff** lotsati bat bezalakoa da.

Gero, pixkanaka indarra hartzen doan **FFFFFFF** ozenago bat bihurtzen da.

Eta azkenean, gaztelu puzgarria jada airez beteta dagoenean, ordura arte siesta egiten egon den mustro horri lanean hasteko ordua iritsi zaiola gogorazten dion **TUNK** jostalari bat bilakatzen da.

Soinu hori izugarri gustatzen zitzaidan!

Ikastolako festa egun berezia izaten zen niretzat, eta urte hartakoa ez zen gutxiago izango. Koloretako girlandak zeuden nonahi, puxikak, txikientzako tailerrak... eta baita talo-saltoki bat ere, bere txorizo eta guzti!

Baina ez gaitezen distraitu, nire egun horretako helburu nagusia gaztelu puzgarria zelako.

Izan ere urte hartako gaztelua ez zen nolanahikoa, ez pentsa! Ohiko dorre eta leiho saretuez gain, ate handi-handi bat ere bazuen, hortzez beteriko aho goseti baten itxurakoa.

Eta oraindik ez duzu onena irakurri: albo batean, kolore berdez marraztutako **HERENSUGE** bat ere bazuen.

Animalia dotoreak dira herensugeak. Beti iruditu zait inauteriak urte osoan zehar ospatzen dituzten dinosauro batzuk direla. Ez duzu uste?

—Niko —deitu zidan amak, bere ahotsa musikaren gainetik altzarazteko oihukatuz—. Talo-saltokiaren



ondoan egongo gara, Ainhize eta Unairen gurasoekin, entzun al duzu? Etorri hona bazkarirako, txirrinak jo bezain pronto.

Ikastolak bazkari handi bat antolatzen zuen, jai eguna zela eta. Familiak gimnasioan batu eta gunea alderik alde zeharkatzen zuten mahai jarraituetan esertzen ziren. Postreen ordua iristen zenean, Musikako andereñoak gitarra ateratzen zuen eta gurasoak berarekin kantatzera animatzen zituen.

Kalian gora, Ixil-ixilik dago, Anteron txamarrotia...

Badakizu zertaz ari naizen.

Ez zen lagunekin normalean entzuten nuen musika estiloa, tira, baina dibertigarria zen gurasoak eta irakasleak lotsarik gabe desafinatzen ikustea.

Nik amari baietz esan nion.

Txirrinak jo orduko, haiekin elkartuko nintzela.

Eta gazteluan barrena salto egin nuen.

Ia zapatilak kentzeko denborarik gabe!

Bertan jauzika ari nintzen bitartean, aita begira nuela konturatu nintzen.

—Zer gertatzen da, aita?

Aita keinu bitxi batez ari zitzaidan begira. Ez tristuraz, agian, baina bai sentimendu horretatik oso hurbil zegoen aldarte batez.

—Ez da ezer, Niko —esan zuen azkenik.

Hemen, gure artean, esango dizut ez zela oso sinengarria izan.

—Kontua da, ni txikia nintzenean ez zegoela horrelako puzgarririk —jarraitu zuen.

—Zer egiten zenuten orduan?

—Ba... —Aita pentsatzen geratu zen—. Lagunekin korrika egiten genuen, pilotan aritzen ginen, soka saltoan ibiltzen ginen... Eta listo.

Aita flotagailu zulatu bat bezala husten joan zen, hitz egin ahala.

—Ba egunen baten hau probatu beharko zenuke!

Aitak barre egin zuen, nostalgiaz beteriko barrea izan bazen ere.

Gaztelu puzgarria umez bete zen une batetik bestera. Koloretako kamisetekin jantzitako inurriak ginelan ematen zuen!

Eta hainbeste ume eta hainbeste salto zela eta ez zela, tira, perfume bitxi batek ere inguratu ninduen. Plastiko beroaren usaina eta galtzerdi izerdituena nahasten zituen perfume bat, hain zuzen ere.

Ez dut uste inork horrelako usaineko koloniarik erosiko zuenik, baina hori da gaztelu puzgarrien usain ofiziala.

Eta niri munduko usainik atseginena iruditzen zitzaidan une horretan!

Jauzi egin nuen.

Gero, beste jauzi handiago bat.

Eta, orduan, nire gorputzak gogoratu zuen fisikaren legeak desberdinak direla gaztelu puzgarri baten barruan.

Gaztelu puzgarri baten barruan gorago igo nahi baduzu, igo egiten zara.

Eta jaitsi nahi baduzu...

Benot: jaitsi nahi baduzu, segundotxo pare bat itxaron baino ez duzu egin behar.

—Begira zein altu heldu naizen, aita! —oihu egin nuen.

Baina aita ez zegoen gazteluko leihoaren beste aldean.

Aita gazteluko atean zegoen!

Txaketa lurrean utzita eta ezpainei hozka, zalan-tza keinu batekin.

Zer ote zerabilen buruan?

Aitak pauso bat eman zuen aurrera.

Gero, beste pauso bat atzera.

Eta orduan argi ikusi nuen: berak ere gaztelura **SARTU** nahi zuen!

Gazteluaren ondoan zegoen begiralearengana hurbildu, eta atea seinalatu zion hatz zalantzati batez.

—Ahal dut? —galdetu zuen.

Begiraleak goitik behera ikuskatu zuen aita. Eta behetik gora.

—Ui, ez, barkatu —ebatzi zuen begiraleak horren ondoren—. Haurrentzako da bakarrik.

—Banekien, banekien... —esan zuen aitak bizkor—. Bistan dago gaztelu hau umeentzako jarri dutela, bai. Baina, badakizu, helduentzako ere aproposak diren halako zer batzuk ba omen daudela entzun nuen behin irratian, eta, tira...

—Hautsi egin daiteke —erantsi zuen begiraleak. Eta horrek aitaren hitz-jario urduriari behin betiko amaiera eman zion.

Gazteluaren egitura aztertu nuen.

Puzgarritzar hori, apurtu?!

Nola hautsi daiteke gomaz egindako eraikin bat?!

Edalontziak, lurrera erortzen direnean, hautsi egiten dira.

Edo galletak haginkada bat ematen diezunean!

Baina gaztelu puzgarri hura benetan sendoa iruditzen zitzaidan.

Aita geldirik geratu zen, gazteluaren ondoan.

—Jakina, bai. Zentzu osoa du horrek —esan zuen irribarre triste batekin.

Eta gaztelutik aldendu zen, urtebetetze batera gonbidatu ez duten umea festatik urruntzen den bezala.

TXIRRIIIIN!!!

Une horretantxe, bazkarirako tinbreak jo zuen.

EZUSTEKO BISITARI BAT



—Hori zoritxarra.

Justu ondoen pasatzen ari nintzenean, puzgarrian jo-
lasteari utzi eta gurasoekin joateko ordua heldu zi-
tzaidan.

Zapatilak janzten ari nintzen, eta norbaitek dei-
tzen zidala iruditu zitzaidan.

—**TSS, TSS.**

Soinua gaztelu barrutik zetorren, baina gainerako
umeak handik joanak ziren ordurako.

Gaztelua hutsik zegoen.

Edo hala zirudien behintzat!

—Niko —xuxurlatu zidan ahots batek.

—Bai?

Zapatilak kendu gabe sartu nintzen gazteluan.

Alde batetik, begiralea jada ez zegoelako gazteluaren inguruan, eta ez zidalako errietarik egingo zapatilekin hara sartzeagatik. Baina, beste alde are garrantzitsuago batetik, zapatilekin askoz ere erosoago ibiliko nintzelako gaztelutik korrika irten behar izatekotan!

Nor ari zitzaidan horrela deika?

—Hor ez, Niko —ekin zion berriro ahotsak—. Hemen!

Gazteluko txoko batean burdin jantzi puzgarri bat zegoen.

Eta nire begien aurrean mugitzen hasi zen.

Aurrena, ezkerretara, eta gero, eskuinetara kullunkatu zen. Nik banekien hura bezalako apaingarriak normalean ez direla euren kabuz mugitzen. Baina, jadanik jakingo duzunez, nire abenturak ez dira normalegiak izaten.

Eta kontua da ahotsa ezaguna egiten zitzaidala.

—Zu al zara, amona?

Poliki-poliki hurbildu nintzen burdin jantziraino.

Hain, baina **HAIN** pauso motzak emanaz, non ia leku berean nenbilela esan baitzitekeen.

Halako batean, burdin jantziaren bisera **PLAUST** altxatu, eta bertan amona Gregoriren begiak ikusi nituen arte.

—Zer egiten duzu hemen, amona?!

—Gauza ez da **ZER** egiten dudan hemen, Niko, baizik eta **ZERTARAKO** etorri naizen honaino —erantzun zidan amonak, burdin jantzi puzgarri haren barruan ere seriotasunari eusteko ahaleginetan.

—Zuri ere gustatzen al zaizkizu gaztelu puzgarriak, aitari bezala?

—Bai, noski! Baina gaur ez naiz etorri hona jauzi eta salto egitera. Zure bila etorri naiz. Planetarteko Konfederazioak misio garrantzitsu bat dauka guretzat!

—Zer gertatu da?

—Ez dago azalpenetarako denborarik, Niko. Oraingoz esan diezazukedan gauza bakarra da Goma-zko planetara joan behar dugula. Burbuileta galaxiaren bihotz-bihotzera.

Amona Gregorik ahalegin handia egin zuen burdin jantzia kentzeko. Ikusgarria zen, baina aldi berean oso deserosoa.

—Nola bidaiatuko dugu haraino? —galdetu nuen—. Espazio-ontziren bat ekarri ahal duzu? Autobus hegalaria bat, azken aldian egin zenuen bezala? Espazio



eta dimentsioen arteko mugak apurtzen lagunduko digun kanoi kuantikoren bat???

Une bat.

Azkarregi al noa?

Agian ez duzu jakingo zertaz ari naizen, aitona-amonak normalean paseatzen, lagunekin kafea hartzen edo familia osoarentzat kroketak prestatzen ibiltzen direlako.

Baina nire amonak Planetarteko Konfederaziorako egiten zuen lan, agente intergalaktiko gisa! Eta ez zen nolanahiko agentea, ez pentsa, onenetakoa baizik.

Unibertsoko punta batetik bestera bidaiatzen ematen zuen eguna, era guztietako misterioak argitzen.

Eta horren guztiaren alderdirik onena zera zen: aspaldion bere misioetara berarekin joaten uzten zidala, laguntzaile.

Esperientzia aparta zen hura!

Zenbat eta gehiago ezagutu unibertsoa, orduan eta zoragarriagoa iruditzen zitzaidan.

—Gaur ez dugu horrelakorik, Niko. Espazio-ontzi guztiak erreserbatuta egon dira, eta kanoi kuantikoa erabiltzea arriskutsuegia da inguru honetan. Gaur, bidaiatzeko egin beharko dugun gauza bakarra salto egitea da.

—Hori bakarrik?

—Horretarako asmatu zituzten hau bezalako gaztelu puzgarriak, ezta?

Amonak eskua bere soineko loredunaren poltsikoan sartu eta pistola itxurako tresna bat atera zuen handik.

Puntan gomazko bola **HANDI** bat zuen pistola itxurako tresna bat, hain zuzen ere.

—Zer da hori, amona? —galdetu nuen.

—Erabilera anitzeko masaje-emaile mastodontiko bat. Berarekin gaztelu honetako plastikoaren barne egitura aldatuko dut eta... Beno: ikusiko duzu.

Amonak masaje-makina piztu, eta gazteluko zoruarekin kontaktuan jarri zuen.

Gaztelua dardarka hasi zen, norbait kilimak egi-ten ari balitzaio bezala.

—Salto egin, Niko!

Amonari kasu egin nion, eta ahal bezain altu egin nuen jauzi.

Garbi zegoen masaje-emaileak zerbait aldatu zuela gazteluko barne egituren, nire oinak orain plastikoan hondoratzen zirelako. Egosi gabeko bizkotxo-orez egindako koltxoneta baten gainean saltoka ariko baintz bezala!

—Altuago, Niko!

Begiak itxi eta are gorago igotzeko ahalegina egin nuen.

Gazteluan gero eta gehiago hondoratzen ari nintzela sentitzen nuen, baina, aldi berean, nire gorputzak gero eta gorago egiten zuen zerurako bidean!

Halako batean, **ZZZZZUP!**, gazteluko zoruak irentsi egin ninduen arte.

Orduan aire-korronte batek bultzatuta hasi nintzen erortzen, ziztu bizian.

Tornadoren batek botatako zuhaitz-hostoa bezala sentitzen nintzen.

Ekaitzaren erdian galdutako puxika bat bezala.

Aspiragailuaren hoditik gora bueltaka doan ilea bezala!

Eta une hartan, ni bezalako ume batek egin zezakeen gauza bakarra egin nuen.

—Amonaaa!!!

Garrasika hasi nintzen. Zer beste gauza egin behar nuen, ba.

—Lasai, Niko. Hau ere nire planaren parte da —erantzun zidan hark, erorketaren norabidea hobeto kontrolatzeko besoak zabaltzen zituen bitartean—. Jarri al zaitut inoiz arriskuan gure misioetako batean?

Aratan 3 planetako azukre-meategietan ia galdu ginen aldiaz oroitu nintzen.

Edo Arezabaleko piramide hegalariek ia zanpatu gintuzten aldiaz.

Edo siestatik altxatu berriko hegazti erraldoi batzuek ia akabatu gintuztenekoaz.

Baina arriskuan, arriskuan...

Amonak bere erlojuko komunikagailua piztu eta ahots sendo lasaiaz mintzatu zen handik.

—Amona Gregori Planetarteko Konfederazioko Aginte Zentrura deika. Hor al zaude, Flint?

Hori esan bezain pronto, pantaila holografiko bat piztu zen airean.

Eta ondo baino hobeto ezagutzen nuen irudi bat agertu zen han.